

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

5743

EBAZPENA, 2024ko azaroaren 27koa, Plangintza eta Antolaketako zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita Lanbide Heziketako erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko 2025. urteko probetarako deialdia.

Lanbide Heziketako Heziketa Zikloetarako sarbidea arautzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko otsailaren 11ko Aginduaren 2.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak heziketa-zikloetara sartzeko proba bate-rako deialdia egingo du gutxienez urtean behin.

Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duen uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren 76.1 artikulua hau ezartzen du: «2. edo 3. mailako heziketara sartzeko betekizun akademikoak betetzen ez direnean, administrazio eskudunak egiaztatu beharko du ikasleek badituztela dagokion heziketa probetxuz egiteko alde aurreko ezagutzak. Egiaztapena heziketa-eskaintza bakoitzaren aurretik egin ahal izango da, egiaztapen edo proba espezifikoaren bidez».

Era berean, Errege Dekretu horren 110.1 artikuluan, erdi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko probei dagokienez, eta 114.1 artikuluan, goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko probei dagokienez, ezartzen da administrazio eskudunek lanbide-heziketara sartzeko proba espezifikoak deituko dituztela urtero, eskatutako betekizun akademikoak betetzen ez dituzten pertsonentzat.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdia.

Lanbide Heziketako erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko 2025. urteko probetarako deialdia egiten da, irakaskuntza horietara zuzenean sartzeko betekizun akademikoak betetzen ez dituztenentzat.

Plaza-kopuru hauek sartzen dira deialdian: erdi-mailako probarako, bostehun plaza, eta, goi-mailako probarako, mila plaza.

Erdi-mailako edo goi-mailako probetarako eskatzaileen kopurua txikiagoa bada dagokion kuporako iragarritako plaza-kopurua baino, soberakin hori beste kuporako erabil daiteke, han eskaera gehiegi badago.

Ebazpen honetan aipatzen diren datak eta epeak egutegiari buruzko artikuluan ezarritakoak dira.

Ebazpen honetan aipatzen diren zerrendak Interneteko Ikasgunea atarian eta izena emateko edo erreferentziarako ikastetxeko idazkaritzan kontsultatu ahal izango dituzte interesdunek.

Kontuan izan behar da interesdunei egiten zaizkien jakinarazpenak eskabidean adierazitako posta elektronikotara edo telefono mugikorretara egingo direla.

2. artikulua.– Onartzeko lehenespen-irizpideak.

Eskaera-kopurua handiagoa bada deialdian jasotako plaza-kopurua baino, lehenetasun-ordena ezarriko da, lehenespen-irizpide hauen arabera, adierazten den hurrenkera honetan:

1. Euskal Autonomia Erkidegoan aurreko bi urteetako deialdietan sarrera-probaren zatiren bat gainditu izana, Lanbide Heziketako Heziketa Zikloetarako sarbidea arautzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko otsailaren 11ko Aginduaren 5. artikuluko 3. puntuaren arabera.

2. Bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan izatea. Hezkuntza Sailak proba hauek kudeatzeko erabiltzen dituen informazio-sistemetan ageri dena hartuko da kontuan, edo eransten den erroldatze-ziurtagirikoa (ikus Dokumetazioari buruzko artikulua); horretarako, informazio-sistema horietan eguneratu beharko da.

3. Ordena alfabetikoa, abizenen eta izenaren arabera. Ordena hori «P» letratik hasiko da, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko irailaren 29ko Ebazpenean zehaztutakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, argitara ematen da 2024/2025 ikasturtean ordezkapenetarako hautagaiak kudeatzeko prozesuan –bai eta ikasturte horretan zehar iragarritako beste edozein hautaketa-prozesutan ere– ordena alfabetikoa zehaztuko duen letraren zozketaren emaitza.

3. artikulua.– Izen-emateak eta informazioa.

1.– Proba horiek egiteko eta, hala badagokio, dagozkien salbuespenak lortzeko (bai proben atalenak, bai prezio publikoarenak), interesdunek izena eman beharko dute, salbuespenak eskatu eta kasu bakoitzean dagozkion dokumentazioa erantsi, horretarako ezarritako epeetan.

2.– Bi era hauetako batean aurkeztuko dira eskabideak:

- Izena emateko ikastetxeetan (I. eranskinean zehazten dira).
- Online, Ikasgunea atariaren bitartez (<https://ikasgunea.euskadi.eus>).

3.– Probak euskaraz edo gaztelaniaz egin ahal izango dira, eta nahitaezkoa izango da bietako bat aukeratzea, izena emateko unean.

4.– Izena emateko unean egiaztatuko da interesdunak erabiltzaile eta pasahitz baliozkoak dituela Ikasgunea atarian, eta, halakorik ezean, une horretan bertan eskuratu ahal izango ditu.

5.– I. eranskinean jasotako inskripzio-ikastetxeek honako hauei buruzko informazioa emango diete interesdunei: sartzeko baldintzak, salbuespen-eskaerak, prozesuaren datak, proben edukia eta proba horiekin lotutako gainerako informazioa.

4. artikulua.– Curriculumua.

Erreferentziazko curriculumua hau da:

Erdi-mailarako, Lanbide Heziketako Heziketa Zikloetarako sarbidea arautzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko otsailaren 11ko Agindua, V. eranskina.

Goi-mailarako, Lanbide Heziketako Heziketa Zikloetarako sarbidea arautzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko otsailaren 11ko Agindua, VII. eranskina.

5. artikulua.– Salbuespenak.

Salbuespen hauek aplikatuko dira:

Erdi-mailarako, hauetan adierazitakoak:

- Lanbide Heziketako Heziketa Zikloetarako sarbidea arautzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko otsailaren 11ko Agindua, 3.4 artikulua.
- Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duen uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretua, 110.5 artikulua.

Goi-mailarako, hauetan adierazitakoak:

- Lanbide Heziketako Heziketa Zikloetarako sarbidea arautzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko otsailaren 11ko Agindua, 4.4 artikulua.
- Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duen uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretua, 114.5 artikulua.

6. artikulua.– Dokumentazioa.

Izena emateko epea amaitu aurretik aurkeztu beharko dituzte interesdunek egokitzat jotzen dituzten agiri guztiak.

Nahitaezko agiri bakarra nortasuna egiaztatzen duena da. Gainerakoak hautazkoak dira, eta ez aurkezteak edo oker aurkezteak ez du berez ekarriko proba hauetatik baztertuta geratzea.

Dokumentazio motak:

- Nortasuna egiaztatzea: eskabidea egiteko, nahitaezkoa da nortasuna egiaztatzea (NAN, AIZ, AIT edo pasaporte bidez). Sistemak identifikazio-datuak automatikoki baliozkotzen ez baditu, nortasun-egiaztagiraren fotokopia aurkeztu beharko da. Halakoetan, izena emateko ikastetxeetako idazkaritzek aztertuko dute aurkeztutako dokumentazioa baliozkoa den ala ez.
- Erroldatze-papera edo -egiaztagiria, gehienez ere 3 hilabete lehenago egina, izena emateko epearen hasiera-eguna baino. Sarbide-proba hauei dagokienez, helbidea eguneratuta ez badago edo Hezkuntza Sailaren informazio-sistemetan helbiderik agertzen ez bada, errolda-paper edo -egiaztagiri eguneratua aurkeztu beharko da. Hori egin ezean, eragina izango du lehenespen-prozesuan, baina inola ere ez du berez ekarriko probetatik baztertzea.
- Prezio publikoari nahiz azterketa-atalei dagokienez eskatutako salbuespenak justifikatzeko dokumentazioa: aurkeztu ezean, edo behar bezala aurkeztu ezean, prezio publiko orokorra ordaindu beharko da edo ez da geratuko salbuetsita dagozkion azterketa-ataletatik, baina ez du berez ekarriko probetatik baztertzea.

7. artikulua.– Onartutako eta baztertutako pertsonen zerrendak eta salbuespenen zerrenda.

Izena emateko epea amaitu ondoren, eta parte hartzeko eskaerak eta prezio publikoetatik eta proben atal batzuetatik salbuesteko eskaerak aztertu ondoren, zerrenda hauek argitaratuko dira:

- Ordainketa egin aurretik onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda.
- Proben ataletarako eta azterketa-eskubideetarako salbuespenen behin-behineko zerrenda.

Ondoren, zerrenda horiei erreklamazioak egiteko epea irekiko da. Aurkeztutako dokumentazioa zuzendu ahal izango da, baina ezin izango da dokumentazio berririk gehitu. Erreklamazioak Ikasgunearen bidez egin beharko dira.

Erreklamazioak aztertu ondoren, hauek argitaratuko dira:

- Ordainketa egin aurretik onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda.
- Proben ataletarako eta azterketa-eskubideetarako salbuespenen behin betiko zerrenda.

8. artikulua.– Sarbide-proben eskubideak ordaintzea.

Ordainketa egin aurretik onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren, probak egiteko eskubideak ordaindu beharko dira. Matrikulak balioa izan dezan, dago-kion prezio publikoa ordaindu beharko da.

Ordaintzetik erabat salbuetsita dauden pertsonak, matrikulazio-prozesua amaitzeko eta sarbide-probak egin ahal izateko, ez dute inolako ordainketarik egin behar, baina ordainketa-gutuna sortu beharko dute, matrikula amaituta gera dadin.

Inskripzio-frogagirian agertzen den web-helbidean (URL) edo inskripzio-ikastetxeko idazkari-tzan eskuratu beharko da ordainketa-gutuna.

Hezkuntza-arloko eskumena duen saileko sailburuaren 2013ko uztailaren 10eko Aginduaren 6. artikulua araberaren arabera –horren bidez, hezkuntza-arloko eskumena duen sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzen dira–:

- Lanbide Heziketako erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko probetarako aplikatu beharreko prezio publikoa 18 euro da.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoari buruzko Legearen testu bategina onartzeko irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak aipatzen dituen modalitateen bitartez ordaindu daiteke. Kreditu-erakunde kolaboratzaileek lagunduko dute horretan.
- Prezio publikoaren salbuespenak eta hobariak:
 - Prezio publikoaren % 50eko hobaria izango dute kategoria orokorreko familia ugarietako kide diren interesdunek.
 - Lanbide Hastapeneko bigarren maila batetik datozen interesdunak erabat salbuetsita egongo dira prezio publikotik.
 - Prezio publikotik erabat salbuetsita egongo dira, halaber, kategoria bereziko familia ugarietako kide diren interesdunak, genero-indarkeriaren biktimak eta haien seme-alabak (25 urtetik beherakoak badira eta haiekin eta haien kargura bizi badira), bai eta Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 25. artikuluan jasotako kasuetan daudenak ere.

9. artikulua.– Ikastetxea berresleitzea.

Azterketa-eskubideak ordaindu ondoren, ikastetxe bakoitzean matrikulatutako pertsona-kopuruaren arabera, Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak berresleipenak egin ditzake ikastetxeen artean. Berresleitutako pertsonen espedienteak berresleitzearen ondorioz dagozkien ikastetxee-

tara bidaliko dira. Izen-ematea egin den ikastetxea arduratuko da esleitutako ikastetxe berrira lekualdatzeaz.

Jarraian, ordainketa egin ondoren onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda argitaratuko da, dagokion egunean, eta, zerrenda horretan, pertsona bakoitzari probak egiteko esleitu zaion ikastetxea adieraziko da. Une horretatik aurrera, ikastetxe hori izango da proba horiek egiteko erreferentziazko zentroa.

10. artikulua.– Argitaratzeko eta kontsultatzeko tokiak.

Ikasgunearen bidez egin beharko dute interesdunek prozesuko faseen jarraipena; horrez gain, izena emateko edo erreferentziazko ikastetxearen idazkaritzan ere kontsultatu ahal izango da, hala badagokio.

Prozesuari buruzko informazio orokorra Lanbide Heziketako web-orrian egongo da kontsultagai: <https://www.euskadi.eus/informazioa/heziketa-zikloetarako-sarbide-probak/web01-a2hlanhz/eu/>

11. artikulua.– Probak egitea.

1.– Probak non egingo diren:

Ordaindu ondoren onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendan pertsona bakoitzari esleitu zaion ikastetxean egingo dira probak.

Probak egingo diren ikastetxeetako zuzendaritzen ardura izango da tokiak antolatzea eta proben antolaketa ikuskatuko duten langileak zein izango diren zehaztea. Halaber, ikastetxe horietako idazkaritzek proben kalifikazio-aktak zainduko dituzte.

Probei buruzko gainerako agiriak, deialdi bakoitzari dagozkion ariketak barnean direla, aplikatu beharreko araudiaren arabera gordeko dira.

2.– Probak prestatzea eta ebaluatzea.

Lanbide Heziketako Heziketa Zikloetarako sarbidea arautzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko otsailaren 11ko Aginduaren 2. artikulua araberak:

- Probak eta ebaluazio-irizpideak komunak izango dira ikasle guztientzat, eta Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak zehaztuko ditu.
- Ebaluazio-batzordeak eratuko dira probak egingo diren ikastetxe publikoetan.
- Hezkuntza Ikuskaritzak egingo ditu prozesuaren gaineko ikuskaritza- eta aholkularitza-lanak.

12. artikulua.– Probaren emaitzak eta erreklamazioak.

Dagokion egunean argitaratuko dira behin-behineko emaitzak. Une horretatik aurrera, erreklamazioak egin ahal izateko epea irekiko da, eta azterketa egin den ikastetxeko idazkaritzan aurkeztu beharko dira.

Erreklamazioei dagokienez, adierazi behar da azterketa bakoitza hura zuzendu den ikastetxean gordeko dela, eta balitekeela ikastetxe hori ez izatea azterketa egin zen ikastetxea. Horrela, erreklamazioa beste ikastetxe batean zuzendutako azterketa bati badagokio, balizko aurrez aurreko berrikuspina zuzenketa-zentroan egingo da.

Ebazpen honetan araututa ez dagoen guztian, dagokion ikastetxeko antolakuntza- eta jar-duera-araudia (AJA) aplikatuko da.

Erreklamazioak aztertu ondoren, adierazitako egunean argitaratuko dira proben behin betiko emaitzak.

13. artikulua.– Proben ziurtagiria.

Proba osoa gainditu dutenek ziurtagiria eskuratu ahal izango dute, adierazitako egunetik aurrera. Horretarako, Ikasgunea atarian sartu beharko dute.

14. artikulua.– Prozesuaren egutegia.

Fasea	Eguna/Epea
Izena emateko epea	Urtarrilaren 20tik otsailaren 7ra
Ordinketa egin aurretik onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda Proben ataletarako eta azterketa-eskubideetarako salbuespenen behin-behineko zerrenda	Otsailak 14
Zerrenden aurkako erreklamazioak	Otsailaren 21era arte
Ordinketa egin aurretik onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda Proben ataletarako eta azterketa-eskubideetarako salbuespenen behin betiko zerrenda	Otsailak 28
Sarbide-proben eskubideak ordaintzea	Martxoaren 14ra arte
Ordinketa egin ondoren onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda	Martxoak 21
Sarbide-probak egitea	Maiatzak 6 eta 7
Behin-behineko emaitzak	Maiatzak 20
Behin-behineko emaitzen aurkako erreklamazioak	Maiatzaren 23ra arte
Behin betiko emaitzak	Maiatzak 28
Ziurtagiriak eskuratzea	Maiatzaren 30etik aurrera

Hauek dira sarbide-proben atalen azterketak egiteko egunak eta orduak:

Erdi-mailako heziketa-zikloa	Goi-mailako heziketa-zikloa	Eguna/Ordua
<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntzalaritza 	<ul style="list-style-type: none"> Zati komuna 	2025eko maiatzaren 6a asteartea 16:00
<ul style="list-style-type: none"> Zientifiko-Teknologikoa Soziala 	<ul style="list-style-type: none"> Zati espezifikoa 	2025eko maiatzaren 7a asteazkena 16:00

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honetan arautzen ez den guztirako, prozedura-arloan osagarri gisa aplikatuko dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea.

Proben garapenarekin eta edukiarekin lotutako beste gai batzuetarako, Lanbide Heziketako Heziketa Zikloetarako sarbidea arautzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailbueraren 2016ko otsailaren 11ko Aginduan xedatutakoa bete beharko da.

2024ko abenduaren 16a, astelehena

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 27a.

Plangintza eta Antolaketako zuzendaria,
NICOLÁS SAGARZAZU ALZUA,

ERANSKINA

2025EKO SARBIDE-PROBAK: IZENA EMATEKO ETA PROBAK EGITEKO IKASTETXEAK

			Erdi-mailako zikloa	Goi-mailako zikloa
Araba	1	CIFP Mendizabala LHII		•
	2	IES Francisco de Vitoria BHI	•	
Gipuzkoa	3	CIFP Politécnico Easo Politeknikoa LHII		•
	4	IES Xabier Zubiri-Manteo BHI	•	
	5	CIFP Miguel Altuna LHII		•
Bizkaia	6	CIFP Emilio Campuzano LHII		•
	7	CIFP Txurdinaga LHII		•
	8	IES Eskurtze BHI	•	
	9	CIFP Barakaldo LHII		•
	10	CIFP Bidebieta LHII		•